

Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA
2006KO URRIA



euskara ikasteko atea
zabalik



ULIBARRI
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura



Agurtzane Emaldi - Etxebarriko Euskara teknikaria

Noiz hasi zen Euskara Zerbitzua?

2000. urteko urrian hasi zen. Hasieran beste irakasle bat hasi zen baina otsailean lanpostu hori hartu nuen. Hasieran lanaldi erdiz eskola ematen nuen euskaltegian eta beste lanaldi erdia Euskara Zerbitzuan egoten nintzen. 2001ean lanaldi osoz hasi nintzen hemen lanean. Tartean alaba eta semea jaio ziren eta amatasun baimenak hartu nituen.

2004an Udala Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) sartu zen. Plan hau 5 urtekoa da eta garatzeko beste langile bat, Aitor, kontratatu zuten. Beraz gaur egun biok ari gara lanean.

Zein zerbitzu dauzka Euskara Zerbitzua?

Zerbitzuak 2 atal nagusi dauzka. Alde batetik, Etxebarrin euskararen normalizazioa bultzatzen duen atala. Bertan udalak zehaztutako 12 arloetan aritzen gara, familia, kultura, komunikabideak, erlijioa, aisialdia, kirola, merkataria, dirulaguntzak...

Beste aldetik, Udalaren Normalizazio-plana, barruko plangintza, dokumentuak euskaratzen ditugu, langileak euskalduntzen dira, trebatzen dira...

Zer egiten duzue jendeak zerbitzua ezagut dezan?

Lehen esan dudan bezala, zerbitzu nahiko berria da. Batzuek ez dakite zer egiten dugun edo non dagoen zerbitzua. Ezagutarazteko publizitate idatzia egiten dugu, Zebbarri aldizkari honetan adibidez. Herrian egiten diren kultura-jarduerengatik eta kanpainengatik ezagutzen gaituzte. Adibidez, urtaro bakoitzean Urtaro kultural batzuk antolatzen ditugu, kultur jarduerak ikuskizunak, erakusketak, liburu azoka edo artisauen azoka. Batzuk Kultura Sailarekin elkarlanean. Informazio eta Sentsibilizazio kanpainak, itzulpenak, eta abarrekoak ere egiten ditugu urtean zehar eta euskararekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko aholkularitza ere ematen dugu. Euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditugu eta informazioa eta aholkularitza ere ematen dugu.

Zein hizkuntzatan hitz egiten dute zerbitzuaren erabiltzaileek?

Normalean, euskaltegiko ikasleak badira, euskaraz, baina itzulpenen bat eskatzen duten merkatariek erdaraz. Herriko Elkarteek ere hainbat itzulpen eskatzen digute eta gero eta kide gehiago hurbiltzen da zerbitzu hori eskatzen. Askok du gaitasuna euskara ulertzeko baina oso gutxi erabiltzen du elkarrizketa mailan. Kontuan izan behar dugu Etxebarri herri erdalduna dela eta euskaldunen kopurua % 14 ingurukoa bada ere, erabilera askoz apalagoa da, % 4 ingurukoa da. Hala ere fenomeno hau eskualde osoan gertatzen da, baita herri euskaldunagoetan ere.

Gure lana erabileran eragitea da eta apurka apurka euskara hizkuntza normala izan dadila lortzea.

Zenbat denbora daramazu Etxebarrin lanean?

11 urte inguru, hasieran Euskaltegiko irakasle gisa eta gero Euskara Zerbitzuan.

Gustura zaude lan hori egiten?

Gustuko lana dut. Hasiera gogorra izan zen, ez baita erraza zerbitzu berri bat martxan jartzea. Azken urtean aldaketa sakonak izan dira Euskaltegian eta ez da erraza izan aspaldiko lankideengandik urruntzea. Bestetik Euskara Teknikari lanposturako probak prestatzea ere ez da samurra izan. Baina orain ilusioz aurrera begiratzen dut eta Etxebarrin euskararen normalizazio lana oso itxaropentsu ikusten dut. Badakizue, gogoko tokian aldaparik ez.

Zerbait gehiago esan nahi duzu?

Izugarri pozten naiz gero eta jende gehiago etortzen delako euskara ikastera, eta etortzen direnetatik asko motibatuta daudelako. Bestalde, gustatuko litzaidake euskaltegitik kanpo ere jende multzo bat elkartzera euskara gelatik kanpo ateratzeko, herrian dauden euskaldunak elkartzeko eta elkar ezagutzeko.



Badira laster sei urte Etxebarriko Udal Euskara Zerbitzua sortu zela. Ibilbide laburra baina oparoa izan da orain artekoa ekintzetan, apalagoa euskararen erabilerari loturiko emaitzetan, seguruenik.

Horixe da hain zuzen ere Euskara Zerbitzuaren egitekoa: Etxebarriko gaurko hizkuntza-errealitateari egokiturik bizitzaren esparru guztietan eragitea euskarak bide zabalagoa izateko. Horretarako ezinbestekoa da helburu argiak eta egingarriak ezartzea eta horixe da Udalak 2004. urtean hartu zuen eronka; EBN (Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusia) onartu zuenetik. Plan honek gure helburua bizitzaren arlo guztietan eragiteko asmoa du bost urteko epean: Irakaskuntzan, Familian, Merkataritzan, Administrazioan, Kulturean, Kirolean, Gazterian, Komunikabideetan...

Etxebarri haziz doan herria izanik nork bere harri koxkorra ekartzen badu euskararen mundura lortuko dugu geure helburua.


Ez gara euskaldun asko Etxebarri baina garenak, geure txikitasunean indartuz goaz.

Beraz, ea poliki-poliki eroso eta gustura, baita harro ere, gure hizkuntza aberastuz eta erabiliz eguneroko bizitzan eskolan, parkean, tabernan, etxean, dendan, liburutegian edo udaletxean inguru euskaldunagoa eraikitzen dugun. "Non gogoa, han zangoa".

Agurtzane Emaldi Etxebarria
Aitor Idiakez Sorazu


UDAL EUSKARA ZERBITZUKO
TEKNIKARIAK

Eskolara joateaz gain, euskara ikatea beste zerbait ere bada. Horregatik, urte osoan zehar hainbat ekintza antolatu dira, bai euskaltegian, bai euskaltegitik kanpo. Abenduan, Xabier Amuriza bertsolari handia izan genuen gurekin eta bertsolaritzari buruzko gauza asko irakatsi zizkigun.



Olentzero etortzeaz zegoenean SMS lehiaketa bat antolatu zen, gure Olentzero ere modernoa delako.

Poloniar euskaldun batzuk ere izan genituen gure euskaltegian bisitan, otsailaren 8an, hain zuzen. Beren kulturari buruzko hainbat gauza irakasteaz gain Josu Goirik eman zuen hitzaldian txalaparta jotzen eta dantza batzuk egiten ikasi zuten.



Zebarri honetan bertan agertzen da Aquarium, sagardotegi eta Lezauneko barnetegia buruzko informazioa. Eta ikasturtean zehar, euskaltegitik ateetan Etxebarriko historia eta kulturari buruzko galderak agertu dira noizean behin. Galdera horiek kultur txapelketa baten barruan egin ziren. Ikasleek erantzun zuzena idatzi behar zuten paper batean eta kutxatxo atean sartu. Ondoren, erantzun zuzen gehien eman zituenak eta bigarrenak sari bana jaso zuten.



Aquariuma eta sagardotegia

Pasa den martxoaren 18an, autobusean sartu eta Donostiaraino joan ginen Donostiako aquariuma ezagutzeko asmoz. 11etan geneukan zita eta han zegoen neska bat aquariumean dauden arrainak zeintzuk ziren euskaraz azaltzeko prest. Harrigarrienak marrazoak ziren, baina dordokak, sardinak eta beste arrain mota asko ikusi genituen.

Ondoren, Donostiako alde zaharrean derrigorrezko pintxoak eta txakolinak edan eta gero Hernaniko sagardotegi batera joan ginen, ohiko menua bazkaltzera eta sagardo goxoa dastatzera. Oso giro ona sortu zen joan ginenon artean, eta jadanik ohitura bihurtu da gure euskaltegian neguan edo udaberrian sagardo berria dastatzera joatea.



Lezauneko barnetegia

San Antonioko gurasoen taldeko ikasleak Lezaunera (Nafarroa) joan ginen maiatzaren 19tik 21era. Gure seme-alabak ere gurekin etorri ziren. Guztira 16 pertsona elkartu ginen. Lezaun Lizarratik hurbil dago eta asteburu osoa egon ginen han euskaraz hitz egiteko. Lezaunen euskaltegiaren barnetegi bat dago eta, noski, hantxe lo egin eta jan genuen. Oso esperientzia polita izan zen, menditik ibili ginen, Lezaun eta Lizarra ezagutu genuen, umeeekin jolasak egin genituen. Helburua bete genuen, asteburu osoa euskaraz hitz egitea eta gehiago ikastea. Datorren urtean ere errepikatuko dugu.



LOGIKA JOKOA

Lagun hauek hizkuntza bana ikasten ari dira. Zein ikasten du bakoitzak? Zenbat eskola ordu hartzen dute egunean? Zen herritan ikasten dute?

Arrastoak

- 1- Euskara ikasten duenak 2 edo 3 eskola ordu ditu astean. Iratxe edo Iban izena du, eta ez da Galdakaokoa da.
- 2- Arrigorriagakoa alemanera ikasten ari da. Ez da Asier deitzen eta ez ditu astean 5 eskola ordu jasotzen.
- 3- Ibanek 2 ordu ematen ditu astean ingelera ikasten. Arrigorriagan edo Basaurin bizi da.


		HIZKUNTZA				ORDUAK				HERRIA			
		Ingelera	Alemanera	Frantsesa	Euskara	2 ordu	3 ordu	4 ordu	5 ordu	Arrigorriaga	Etxebarri	Basauri	Galdakao
IZENA	Iratxe												
	Asier												
	Iban												
	Naroa												
HERRI	Arrigorriaga												
	Etxebarri												
	Basauri												
	Galdakao												
ORDUAK	2 ordu												
	3 ordu												
	4 ordu												
	5 ordu												

IZENA	HIZKUNTZA	ORDUAK ASTEAN	HERRIA
Iratxe			
Asier			
Iban			
Naroa			

*Luma aldizkariko denborapasa batean oinarrituta

Aurten, matrikulatzen diren ikasleen artean Luma denborapasa aldizkaria etxean jasotzeko hiru harpidetza zozketatuko ditugu.





TXIPIROIAK BEREN TINTAN

Osagaiak

2 kilo txipiroi
3 tipula
2 tomate
olioa
gatza
3 poltsa tinta

Hasteko, txipiroiak ondo garbitu eta beren hankez bete. Sartu lapiko batean ura eta tipula zati batekin, eta egosi hogei minutuz.

Gero, zartagin batean bota olioa, eta tipula eta tomatea zatituta berotu arte. Eginda dagoenean irabiatu irabiagailu batekin.

Ipini txipiroiak eta saltsa lapiko batean eta tinta bota gatz apur batekin.

Egosi dena ordu erdiz.

AZKENBURUKOA GAZTA PASTELA

Osagaiak

Litro erdi esne
Litro erdi esnegain
3 koilarakada azukre
2 poltsa mami
10 sobao
Kanela

Ontzi desmuntagarri bat behar dugu. Ipini sobaoak ontziaren hondoan, ahoz bera. Gero, bota ezazu esnea, esnegaina eta azukrea lapiko batean egosi arte. Nahastu esne pixka bat eta mamia edalontzi batean. Nahasi eta gero, bota ezazu lapiko barrura eta eman buelta batzuk berriro egosi arte. Nahastura hori apur bat hoztu behar da eta gero sobaoen gainean bota. Horren gainean kanela ipini. Amaitzeko, ipini hozkailuan ordubetez.



ETXEBARRIN EUSKARA IKASTEKO BEKAK ETA SARIAK

LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA:

IRAILAK 1-30

PLAZO PARA SOLICITAR LAS AYUDAS:

1 - 30 DE SEPTIEMBRE

EN ETXEBARRI BEGAS Y AYUDAS PARA APRENDER EUSKARA



%50 ERAINOKO LAGUNTZA JASO AHAL IZANGO DUZU
SUBVENCIONES DE HASTA EL **%50**



Udalaren dirulaguntza jasotzeko beharrezkoa izango da:

- Etxebarrin erroldatuta egotea.
- Ikastaroan %90eko asistentzia ziurtatzea.
- 05/06 ikasturtean aprobetxamendu egokia izanaren frogagiria.
- 2006/2007 ikasturtean (irailaren 1etik 30era) Etxebarriko Euskaltegian izena ematea.

Para poder recibir la subvención municipal se deberán cumplir las siguientes condiciones:

- Estar empadronado/a en Etxebarri.
- Acreditar la asistencia del 90% a las clases.
- Acreditar el aprovechamiento adecuado en el curso 05/06.
- Inscribirse en el curso 2006/2007 en el Euskaltegi de Etxebarri (del 1 al 30 de septiembre).



%100 ERAINOKO LAGUNTZA JASO AHAL IZANGO DUZU
SUBVENCIONES DE HASTA EL **%100**



Dirulaguntza bereziak emango zaizkie honako kolektibo hauei: gurasoei, kirol-begiraleei, astialdi-begiraleei eta umeekin zein gazteekin lanean aritzen diren begiraleei.

Se concederán subvenciones especiales a los siguientes colectivos: padres/madres, monitores de tiempo libre, monitores de deporte y monitores de asociaciones locales que trabajen en el ámbito infantil y juvenil.

DIRULAGUNTZA ESKAERA ETA ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA EUSKARA ZERBITZUAN AURKEZTUKO DIRA IRAILAREN 1etik 30era.
LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN Y LA CORRESPONDIENTE DOCUMENTACIÓN SE PRESENTARÁN EN EL SERVICIO DE EUSKERA DEL 1 AL 30 DE SEPTIEMBRE.

Kasu

En todos los casos la ayuda MÁXIMA a conceder será la correspondiente al coste de un módulo de 2 horas diarias de septiembre a junio.



Argibideak Udala Euskara Zerbitzuan
Información en el Servicio Municipal de Euskera:

Bekosolo Parkea z/g
Tfnoa: 94 449 50 43 Faxa: 94 440 29 14
e-mail: euskarazerbitzua@etxebarri.net

www.etxebarri.net



CURSO IKASTURTEA 2006-2007

EGA

Hizkuntza Eskakizunak

Mintzamena

Barnetegiak

Ordutegi malguak

Dirulaguntzak

EGA

Perfiles Lingüísticos

Mintzamena

Barnetegis

Horarios flexibles

Subvenciones

comienzo del curso
ikasturtearen hasiera
urriak 4 octubre

ETXEBARRIKO
EUSKALTEGIA

ORDAINKETA MODURAK

Ordainketa bakarra

Bi epetan

Bederatzi epetan (BBKren bidez)

FORMAS DE PAGO

Pago único

En dos plazos

En nueve plazos (mediante BBK)

DIRU LAGUNTZAK

Asistentzia saria (%50)

Beka ekonomikoa

Begiraleentzako eta gurasoentzako

laguntza bereziak (%100)

SUBVENCIONES

Por asistencia (50%)

Beca económica

Ayudas especiales para monitores,
padres y madres(100%)



Horario de oficina

10:30 / 13:30 -- 15:00 / 18:00

Bulego ordutegia



Bekosolo Parkea z/g
(Etxe horia/Casa Amarilla)
Tel/Fax: 944262802

etxebarri@euskalnet.net



ULIBARRI
EUSKALTEGIA